

Su tresnak gorde nahi dituzte piromanoek

Bonberenea gaztetxearen etorkizuna kolokan dago zazpi urteren ondoren. Makroproiektu urbanistiko batek mapatik ezabatu zuen Tolosako kultur faktoria eta plana atzera bota badute ere, bertako gazteek ez dute jaso oraindik egin dituzten eskakizunen erabateko erantzunik erakunde publikoetatik. Etxearen etorkizuna bermatu nahi dute urbanistikoki eta juridikoki.

| IGOR AGIRRE |

2007AN JARRI ZUTEN MARTXAN Tolosako Bonberenea gaztetxearen Bonberenea Sutan kanpaina aldarrikatzailea. Gaztetxearen etorkizuna zalantzan ikusi zuten orduan bertako gazteek, eraikina dagoen auzoan 1.140 etxebizitza eraikitzeko makroproiektu urbanistikoa diseinatu baitzuen udalak. Proiektu horrek Tolosako San Esteban auzoaren izaera aldatu eta Bonberenea mapatik ezabatzen zuen. Orduetik aurrera, Bonbereneako kideek “piromano” izena jarri zioten beren buruari eta 10.000 sinadura baino gehiago lortu dituzte mugimenduaren alde.

Hemezortzi urte beteko ditu abenduan Bonbereneak eta eze-gonkortasun egoera salatzen hainbat ekitaldi antolatuta dituzte orain arte gaztetxeko piromanoek: kalejira erraldoia Tolosako erdiguneko kaleetatik, lau musika jaialdi eta hitzaldiak, besteak beste. Azken hauei ere “piromanoen deialdia” deitu izan diete eta ekainaren 12an egin dute azkena. Bertan, udal gobernu berriari etorkizunerako eskakizunak plazaratu dizkiote.

Gobernu aldaketa izan zen Tolosako udalean 2011n eta ordura arteko proiektua kolokan jarri zen. 2013an prozesu parte-hartzaile baten bitartez aurretik diseinatutako makroproiektuaren oso bestelako eraldaketa urbanistikoa hautatu zuten auzoko bizilagunek. Prozesu horretan Bonberenea eraikina mantentzea erabaki zuten.

Maiatzeko udal hauteskundeetan, berriro ere, aldaketa egon da Tolosako udalean eta bizilagunen hautua errespetatu dadila eskatu dute publikoki Bonbereneako kideek. Horrela, etxearen etorkizuna urbanistikoki eta juri-

dikoki bermatzea nahi dute gaztetxeko partaideek, bere izaera eta etxearen kudeaketa independentea errespetatuz.

Azken lau urtetako balorazioa egiterakoan, ordea, ezin izan dute baikor agertu. Izan ere, etxearen etorkizuna oraindik ez dago bermatuta. Ez dute nahi Bonberenearen etorkizuna aldi berean aldi berean gobernuaren menpe egotea eta erakunde publikoei dei egin diete beren aldarrikapenei behin betiko erantzuna emateko.

Hala ere, azken legealdian aurrerapausoak egon direla aitortu dute: “Txalotu egiten dugu azken lau urtetan egon den gobernuak Bonberenea mapatik ezabatzen zuen plana atzera bota izana”, adierazi du Bonbereneako kide Juntxo Arakamak mugimenduaren ize-nean. Horrela laburbildu dute 2011tik orain artekoa: “Pausoak eman dira norabide egokian baina

ez gara helmugara iritsi”. *Bonberenea* kantua- ren estrofa bat moldatuz amaitu du aldarrikapena Arakamak: “Olatz entzun gure esana, asko eskatzea ez bada”.

EAJ alderdiko Olatz Peon da Tolosako alkate berria. Peonek *Tolosaldeko Atariak* eta 28 kanalak antolatutako hauteskundeetako debatean Bonbereneako kideen galdera erantzun zuen publikoki. 2011. urtera arte gobernuan izan zen taldean zegoen oraingo alkatea eta orduan, Bonberenea ez zutela mapatik ezabatu adierazi zuen, Bonbereneakoek esandakoa gezurtatuz. Horretaz gain, etorkizunean Bonberenea “auzoko plangintzan mantendu behar dela” erantzun zuen Peonek, “udalak zaindu eta lagundu egin behar du Bonberenea”.

“Ezagutu nuen Bonberenea gabeko Tolosa, leku tristea zen kulturalki eta musikalki”

Natalia Garmendia



JOSETXO PEREZ

Javier Arrizibita, Natalia Garmendia, Fermin Muguruza eta Juantxo Arakama, Bonbereneak antolatutako "Piromanoen deialdia" ekitaldian. Muguruza: "Amodioz defendatuko dugu Bonberenea, baina beharrezkoa bada, amorruez ere bai".

Piromano izateko hiru modu desberdin

Bonbereneako kide Juantxo Arakamak aurkeztu du azken piromanoen deialdia. Berarekin batera oholtza gainean izan dira Javier Arrizibita eta Natalia Garmendia tolosarrak eta Fermin Muguruza musikaria. Gaztetzearekin duten loturaren inguruan hausnartu dute hiru gonbidatuek.

Javier Arrizibita sukalde lanetan laguntzeko sartu zen lehen aldiz Bonberenean, "lan asko egina zegoen ni hona sartu nintzenerako". Gaur egun, bi haurren aita da eta semeetako batek Bonbereneako txaranga jotzen du. "Saxofoia ikasten hasi da eta Bonberenean etortzen da beste gaztetzoeekin batera ikasten jarraitzea". Lasaitasuna ematen dio Arrizibitari bere semea Bonberenean etortzeak, "beraienztat jolas-parke baten modukoa da hau".

Humus taldeko abeslari Natalia Garmendiak Bonberenea martxan jarri aurreko egoera ekarri du gogora oraingo belaunaldientzat: "Nik ezagutu nuen Bonberenea gabeko Tolosa; Tolosa leku tristea zen orduan kulturalki eta musikalki". Lanaren bitartez iritsi dela Bonberenea gaur egunera azpimarratu du Garmendiak, "hemen lana eta bihotza dago, baina batez ere lana".

Humus bezalako taldeei Bonberenean ematen dien babesa ez du ahaztu Garmendiak, "gauzak ongi eta modu profesionalizatu batean egiteko aukera dugu hemen". Diskoak grabatzerakoan "proiektuaren kontrol guztia

du taldeak Bonberenean, eta hori ez da toki guztietan gertatzen", azaldu du.

Fermin Muguruzak Bonberenearekin eta Tolosarekin duen lotura aspalditik dator. Tolosan euskaldundu zen Muguruza eta bere musika ibilbidean hainbat hitzordu izan ditu gaztetzean, lehen aldiz duela hamar urte jo baitzuen. "Hainbat kontzertu, kolaborazio eta grabaketa egin ditut hemen. Gainera, nire taldearekin jo dudana azken kontzertua Bonbereneako futbol zelaian izan da, Bonberenea Sutan jaialdian". Bi urte pasa dira ordutik eta mehatxua oraindik hor dago. "Amodioz defendatuko dugu Bonberenea, baina beharrezkoa bada, amorruez ere bai" gaineratu du Irungo musikariak. ■



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

☎ 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-guipuzcoa.com